

BAZKIDE GARRANTZITSUAK


Bazkide garrantzitsuak enpresa, elkarte edo erakunde batean eragin handiena edo ekarpen handiena duten bazkideak dira. Atal honetan gure enpresaren bazkide garrantzitsuak azalduko ditugu.

Aliantzak edo lankidetzak:

- **SOM ENERGIA:** kooperatiba bat da eta energia berriztagarriaren inguruan egiten du lan. Kooperatiba honen helburua bere bezeroek energia %100 berriztagarria erabiltzea da. Hainbat proiektu garatzen dituzte, adibidez, solar (argi), hidrauliko (ur) edo biomasa eta biogas bezalakoak. Esperientzia handia dute; beraz, lagungarriak izan daitezke, gainera gure proiektuan ere inbertitu dezake guk aurrerapen handiagoak egiteko.



- **I-ENER:** Euskal Herriko kooperatiba herritarra da, energia berriztagarria sustatzen duena. Jende gehiagorengana iristen lagunduko liguke, gure ideia antzekoak dituenek kooperatiba honekin lan egitea interesgarria izan daiteke.



- **ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE/EVE):** Energia hidraulikoa bultzatzen duen erakunde publikoa da. Erakunde honek ekarpen ekonomikoak eta teknikoak emango dizkigu, laguntzak eta baimenak adibidez. Diru laguntzek eta baimenek gure proiektua aurrera ateratzen lagunduko digute, prozesua azkartuz.



- **SIREERGY PROIEKTUA:** Proiektu hau nahiz eta Lea Artibaikoa izan lagungarria izan daiteke. Beraiek, energia berriztagarrien berrikuntzan egiten dute lan, Europako proiektu batean, Euskal erakundeekin elkar lanean. Beraiekin harremanetan jartzen bagara, gure proiektuari ezagutza gehiago edo ezagutza bilatzen lagunduko dio.



- **EUSKO JAULARITZA/UDALAK:** Tokiko diru laguntzak lortzeko, hau da, proiektuekin aurrera egin ahal izateko. Administrazioarekin lankidetzan egotea garrantzitsua da diru laguntzak eta baimenak lortzeko.

